# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**1891**

**20/2011 FORU DEKRETUA, martxoaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da mendetasun egoeran (I. gradua –mendetasun arina-, 2. maila) dauden pertsonak familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen duen araudia, abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoa, garatzeko.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 9.2.d artikuluan adierazten duenez, euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, neurriak hartuko dituzte, gizabanakoaren eta hura integratuta dagoen taldeen askatasuna eta berdintasuna sustatzeko.

Horren harira, Estatutuak 10. artikuluan xedatzen du, besteak beste, gizarte laguntzako gaietan Euskal Autonomia Erkidegoak daukala eskumen esklusiboa.

Bestalde, Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.c artikuluan ezartzen du lurralde historikoei dagokiela beren eremuan gizarte laguntzako gaietan erakunde komunen legegintza, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunek ere zuzenean jardun ahal izan. Halaber, lege berorren 8. artikuluak xedatzen du lurralde historikoei dagozkien gaietan beren zerbitzuak antolatzeko ahalmen arautzailea lurralde historiko horiek izango dutela.

Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoak, prestazio berriak ezarri ditu. Horien artean daude mendekoak familia barruan, euren etxebizitzetan bertan, zainduak izatea sustatzen dutenak, bai senide zuzenek bai beste norbaitek zaintzeko. Horrela, egoitzatan sartzea ekiditen da. Horretarako, prestazio ekonomiko bat ezarri da eta, Arabako Lurralde Historikoan berau betearazteko, nahitaezkoa da xehatuagoa den araudi garapena egitea. Horregatik, Diputatuen Kontseiluak abuztuaren 3an egindako bilkuran 40/2010 Foru Dekretua onartu zuen. Horren bidez, onartu egin zen mendetasun egoeran dauden pertsonak familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoari buruzko araudia eta, ondorioz, urriaren 23ko 70/2007 Foru Dekretua indargabetu zen.

39/2006 Legeak, azken xedapenetatik lehenengoan ezartzen duenez, lege horretan jasotako mendetasunengatiko prestazioak jasotzeko eskubidea mailaz maila gauzatuko da, gradualki, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, bertan zehaztutako egutegiaren arabera.

Legearen indarraldiko lehenengo lau urteetan, III. gradua (mendetasun handia) eta II. gradua (mendetasun larria) aitortuta duten pertsonek prestazioak jasotzeko eskubidea indarrean sartu zen. Aipatutako egutegiaren arabera, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, I. gradua (mendetasun arina) 2. mailan aitortuta duten pertsonek prestazioak jasotzeko duten eskubidea indarrean sartuko da eta, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, eskubide hori I. gradua (mendetasun arina) 1. mailan aitortuta dutenetara zabalduko da.

Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak 8.2.b) eta c) artikuluetan xedatzen duenez, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

**1891**

**DECRETO FORAL 20/2011, del Consejo de Diputados de 22 de marzo, que aprueba la normativa reguladora de la Prestación Económica para Cuidados en el Entorno Familiar de personas en situación de dependencia, en desarrollo de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia, Grado I (Dependencia Moderada), Nivel 2.**

La Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía del País Vasco, declara en el artículo 9.2.d) que los poderes públicos vascos, en el ámbito de su competencia, adoptarán aquellas medidas dirigidas a promover las condiciones y a remover los obstáculos para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean efectivas y reales.

En coherencia con ello, el artículo 10 del Estatuto establece que la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva, entre otras, en materia de Asistencia Social.

Por su parte, la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y lo Órganos Forales de sus Territorios Históricos, señala en su artículo 7.c) que corresponde a los Territorios Históricos la ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de Asistencia Social, sin perjuicio de la acción directa de las Instituciones Comunes del País Vasco, indicándose así mismo en el artículo 8 que en las materias en que corresponda a los Territorios Históricos la ejecución, tendrán la potestad reglamentaria para la organización de sus propios servicios.

La Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, ha establecido nuevas prestaciones, entre las cuales se encuentra la de facilitar la atención de personas dependientes por parte de sus familiares directos o de otras personas en su propio domicilio, evitando así su residencialización, articulándose a través de una prestación económica cuya ejecución, dentro de nuestro Territorio Histórico, exige un desarrollo reglamentario pormenorizado por lo que, con fecha 3 de agosto de 2010, el Consejo de Diputados aprobó el Decreto Foral 40/2010, que regula la prestación económica para cuidados en el entorno familiar de personas en situación de dependencia, procediendo a la derogación del Decreto Foral 70/2007, de 23 de octubre.

La Ley 39/2006 establece en su Disposición Final Primera que la efectividad del derecho a las prestaciones de dependencia incluidas en la misma se ejercitará progresivamente, de modo gradual y se realizará de acuerdo con el calendario que señala y cuya fecha de comienzo es el día 1 de enero de 2007.

Durante los cuatro primeros años de vigencia de la Ley ha entrado en vigor la efectividad del derecho a las prestaciones de las personas valoradas en el Grado III (gran dependencia) y en el Grado II (dependencia severa). De conformidad con el citado calendario, a partir del 1 de enero de 2011, entrará en vigor la efectividad del derecho de quienes sean valorados en el Grado I (dependencia moderada), Nivel 2, y a partir del 1 de enero de 2013 el de quienes sean valorados en el Grado I (dependencia moderada), Nivel 1.

El artículo 8.2.b) y c) de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, establece que corresponde al Consejo Territorial del Sistema para la

Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren egitekoak dira, besteak beste, honako hauek:

- 10.3 eta 15 artikuluekin bat aurreikusitako zerbitzuek eskaini beharreko babes maila zehazteko irizpideak finkatzea; 20. artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusten diren prestazio ekonomikoen baldintzak eta zenbatekoa zehaztea.

Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioko Gizarte Politikaren eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko azaroaren 4ko Ebazpena argitaratu zen (BOE, 284. zk., 2010eko azaroaren 24koa). Horren bidez, aditzera eman zen I. gradua (mendetasun arina) aitortuta duten pertsonei eman beharreko zerbitzuen babes mailak eta prestazio ekonomikoen zenbatekoak zehazteko irizpideak ezartzen dituen erabakia.

Gainera, erabaki horretan xedatzen denez, I. graduko mendetasun egoeran dauden pertsonen kasuan, lehentasuna izango du aurrezaintzak, euren mendetasun gradua eta maila areagotzeari aurre hartzeko xedez. Horrez gain, aurrezaintzak Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren baitan egiten diren jarduera guztien zati ere izan behar du.

Horregatik, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe:

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoeran (I. gradua –mendetasun arina-, 2. maila) dauden pertsonak familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen duen araudia onartzea ebazpen honen eranskinean jasota dagoenaren arabera. Prestazio ekonomiko hori abenduaren 14ko 39/2006 Legean, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoan, aurreikusita dago.

Bigarrena.- Foru dekretu hau Diputatuen Kontseiluak onartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

**Eranskina**

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN MENDETASUN EGOERAN (I. GRADUA –MENDETASUN ARINA-, 2. MAILA) DAUDEN PERTSONAK FAMILIA BARRUAN ZAINTZEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA, ABENDUAREN 14KO 39/2006 LEGEAN, AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEARI ETA MENDETASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ZAINTZEARI BURUZKOAN, AURREIKUSITA DAGOENA.

**1. artikulua.- Xedea.**

Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoeran (I. gradua –mendetasun arina-, 2. maila) dauden pertsonak familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzea, abenduaren 14ko 39/2006 Legean, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoan, aurreikusita dagoena.

**2. artikulua.- Definizioa.**

Familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa aparteko neurria da eta profesionala ez den zaintzailearen arretagatik sortutako gastuak estaltzeko laguntza emateko helburua du. Horretarako, laguntza jasotzeko ezarritako baldintzak bete behar dira. Aparteko neurria denez, bateraezina da abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoak, 15. artikuluan, zerbitzuen katalogoaren barnean, aipatzen duen beste edozein zerbitzurekin, telelaguntza zerbitzuarekin izan ezik.

**3. artikulua.- Prestazioa jasotzeko baldintzak eta betekizunak.**

Honako hauek dira:

1.- Prestazio ekonomikoaren onuradun izan ahalko dira I. gradua (mendetasun arina) 2. mailan balioetsita duten pertsonak, ondoko

Autonomía y Atención a la Dependencia, entre otras, las siguientes funciones:

- Establecer los criterios para determinar la intensidad de protección de los servicios previstos de acuerdo con los artículos 10.3 y 15; -Acordar las condiciones y cuantía de las prestaciones económicas previstas en el artículo 20 y en la Disposición Adicional Primera.

En el BOE nº 284, correspondiente al 24 de noviembre de 2010, se publicó la Resolución de 4 de noviembre de 2010 de la Secretaría General de Política Social y Consumo del Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, por la que se hace público el Acuerdo sobre los criterios para determinar las intensidades de protección de los servicios y el importe de las prestaciones económicas para las personas reconocidas en situación de dependencia en Grado I (dependencia moderada).

En el citado Acuerdo, además, se señala que la prevención será prioritaria para las personas en situación de dependencia en Grado I, con el objeto de prevenir el agravamiento de su grado y nivel de dependencia, debiendo formar parte de todas las actuaciones que se realicen en el ámbito del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD)

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Política Social y Servicios Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero.- Aprobar la normativa reguladora de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción para la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, en el Territorio Histórico de Álava, para el Grado I (dependencia moderada), Nivel 2, según queda redactado en el documento anexo a esta resolución.

Segundo.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su aprobación por el Consejo de Diputados y producirá efectos desde el día 1 de enero de 2011.

Tercero.- Ordenar su publicación en el BOTHA.

**Anexo**

PRESTACIÓN ECONÓMICA PARA CUIDADOS EN EL ENTORNO FAMILIAR, GRADO I DE DEPENDENCIA MODERADA, NIVEL 2, PREVISTA EN LA LEY 39/2006, DE 14 DE DICIEMBRE, DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA PERSONAL Y ATENCIÓN A LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DEPENDENCIA, EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA.

**Artículo 1.- Objeto**

El presente Decreto Foral tiene por objeto la regulación de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar prevista en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, Grado I (dependencia moderada), Nivel 2, en el Territorio Histórico de Álava.

**Artículo 2.- Definición**

La prestación económica para cuidados en el entorno familiar, que tiene carácter excepcional, está destinada a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la atención prestada por la persona cuidadora no profesional, siempre y cuando se reúnan las condiciones establecidas para su acceso, y por su carácter excepcional es incompatible con cualquier clase de servicios del “Catálogo de Servicios” enumerados en el artículo 15 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, salvo con el “Servicio de Teleasistencia”.

**Artículo 3.- Condiciones de acceso y requisitos**

Se establecen los siguientes:

1.- Podrán ser beneficiarias de esta prestación económica las personas valoradas como personas en situación de dependencia en

arau hauek xedatutakoarekin bat etorriz: Arabako Lurralde Historikoan mendetasun egoera onartzeko prozedura, autonomo izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak arautzen dituen apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluaren 39/2007 Foru Dekretua eta Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen (honen bidez legeak eskaintzen dituen zerbitzu eta prestazioak eskuratzeko benetako eskubidea ezartzeko egutegia ezartzen da) azken xedapena. Hori guztia, baldin eta bat-batean hil ez bada, Banakako Arreta Plana egin aurretik, eta araudi honetan ezarritako betekizun guzti-guztiak betetzen baditu.

2.- Mendetasun egoera aitortzeko eskaera egin aurretik, pertsona onuraduna familia barruan zaindua izatea eta, kreditatutako baliabide publiko zein pribaturik ez dagoelako, ezinezkoa izatea zerbitzu bat eskaintzea.

3.- Zaintzailea mendetasun egoera duen pertsonarekin, etxebizitza berean, bizitzea.

Araudi honen ondorioetarako, ez da etxebizitzatzat hartuko ospitale edo egoitza izaerako establezimendurik, publikoa zein pribatua izan.

Mendetasun egoera duen pertsona landa eremuan bizi bada eta eremu horretako baldintzek (kreditatutako baliabide publiko zein pribatu gutxi, herritar gutxi, baldintza geografikoak edo bestelakoak) beste modalitate bateko arreta lortzea eragotzi edo zailagotzen badute, aparteko neurri bezala, administrazioak ondokoa onar dezake: mendekoa profesionala ez den bere inguruneko pertsona batek zaintzea, baldin eta hura mendekoaren udalerri berean edo mugakide den batean bizi bada eskaera egin baino urtebete lehenagotik. Pertsona horrek ez du zertan mendekoaren ezkontide, izatezko bikotekide edo hirugarren mailarainoko odol, ezkontza zein adopzio bidezko ahaidea izan.

4.- Zaintzaileak ez edukitzea aitortuta mendekotasun egoerarik inongo mailatan.

5.- Banakako Arreta Programak prestazioa egokia den ala ez zehaztea.

6.- Abuztuaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 40/2010 Foru Dekretuan eta 39/2007 Foru Dekretuan adierazitako gainontzeko baldintzak betetzea, salbu eta arau honen xede den mendetasun gradua ez den beste baterako soil-soilik eskatzen direnak. 40/2010 Foru Dekretuaren bidez, onartu egin zen mendetasun egoeran dauden pertsonak familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen duen araudia, abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoa, garatzeko.

**4. artikulua.- Prestazioaren zenbatekoa zehaztea.**

2011. urterako, gehienez ere, 180 euro ezarri dira hileko I. gradua (mendetasun arina) 2. mailan dutenentzat.

**5. artikulua.- Prestazioaren zenbatekoa.**

1.- Onuradunei aitortuko zaien prestazio ekonomikoaren zenbatekoa honela kalkulatuko da: urte bakoitzean indarrean dagoen zenbatekoari pertsona horren ahalmen ekonomikoaren araberako koefiziente murriztaile bat aplikatuz. Hori honela egingo da:

Aurreko paragrafoa aplikatzetik ateratzen den zenbatekoari koefiziente murriztaile bat aplikatuko zaio. Koefiziente horrek ezingo du izan ehuneko 25 baino gehiago, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urteko guztizko zerga oinarriaren arabera:

| URTEKO ZERGA OINARRIA, GUZTIRA | MURRIZKETAREN EHUNEKOA |
|---|---|
| 20.000 eurora arte | ehuneko 0 |
| 20.000,01 eurotik 39.999,99 eurora | ehuneko 10 |
| 40.000,00 eurotik 59.999,99 eurora | ehuneko 20 |
| 60.000 eurotik gora | ehuneko 25 |

Grado I (dependencia moderada), Nivel 2, conforme a lo dispuesto en el Decreto Foral 39/2007, del Consejo de Diputados de 24 de abril, que regula el procedimiento de reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Álava y lo dispuesto en la Disposición Final de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, por la que se establece el calendario de implantación de derecho efectivo a los servicios y prestaciones de la Ley, siempre y cuando no haya sobrevenido su fallecimiento con anterioridad a la realización del Plan Individual de Atención y reúnan todos y cada uno de los requisitos exigidos en esta norma.

2.- Que la persona beneficiaria esté siendo atendida mediante cuidados en el entorno familiar, con carácter previo a la solicitud de reconocimiento de la situación de dependencia, y no sea posible el reconocimiento de un servicio debido a la inexistencia de recursos públicos o privados acreditados.

3.- Que la persona cuidadora conviva con la persona en situación de dependencia en el mismo domicilio.

A los efectos de la presente norma, no será considerado como domicilio ningún establecimiento hospitalario, ni residencia, ya sea de carácter público o privado.

Cuando la persona en situación de dependencia tenga su domicilio en un entorno rural caracterizado por insuficiencia de recursos públicos o privados acreditados, la despoblación o circunstancias geográficas o de otra naturaleza que impidan o dificulten otras modalidades de atención, la Administración podrá, excepcionalmente, permitir la existencia de cuidados no profesionales por parte de una persona de su entorno que, aún no teniendo el grado de parentesco de cónyuge, pareja de hecho, pariente por consanguinidad, afinidad o adopción, hasta el tercer grado de parentesco, resida en el municipio de la persona dependiente o en uno colindante, y lo haya hecho durante el período previo de un año a la fecha de la solicitud.

4.- Que la persona cuidadora no tenga reconocida la situación de dependencia en cualquiera de sus grados.

5.- Que el Programa Individual de Atención determine la idoneidad de esta prestación.

6.- Los restantes requisitos señalados en el Decreto Foral 40/2010, del Consejo de Diputados de 3 de agosto, que aprueba la normativa reguladora de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar, en desarrollo de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, y en el Decreto Foral 39/2007, siempre y cuando no se exija con exclusividad para un grado concreto de dependencia diferente al que es objeto de la presente norma.

**Artículo 4.- Determinación de la cuantía de la prestación.**

Para el año 2011, la cuantía máxima de la prestación correspondiente al Grado I (dependencia moderada), Nivel 2, será de 180 euros mensuales

**Artículo 5.- Importe de la prestación.**

1.- El importe de la prestación económica a reconocer a cada persona beneficiaria se determinará aplicando a la cuantía vigente de cada año un coeficiente reductor según su capacidad económica, de acuerdo con lo que se dice a continuación:

A la cuantía que resulte de lo dispuesto en el párrafo anterior se aplicará un coeficiente reductor, que no podrá exceder del 25 por ciento, en función de la Base Imponible Total Anual en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

| BASE IMPONIBLE TOTAL ANUAL | PORCENTAJE DE REDUCCIÓN |
|---|---|
| Hasta 20.000 euros | 0 por ciento |
| De 20.000,01 a 39.999,99 euros | 10 por ciento |
| De 40.000,00 a 59.999,99 euros | 20 por ciento |
| De 60.000 euros en adelante | 25 por ciento |

2.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egitetik salbuetsita dauden pertsonek egiaztatu egin beharko dute.

Foru dekretu honen ondorioetarako, aitorpena egiten ez duten eta salbuetsita daudela egiaztatzen ez duten pertsonei 60.000 eurotik gorako urteko guztizko zerga oinarria egotziko zaie.

3.- Pertsona onuradunak ezkontidea edo izatezko bikotekidea izanez gero, urteko guztizko zerga oinarritzat joko da bikotearen bi kideen oinarriak gehitzean lortutakoaren erdia.

Pertsona onuradunak, gainera, bere kargura ekonomikoki bere mende dauden aurreko edo ondorengo ahaideak baditu, bere ahalmen ekonomikoa honela zehaztuko da: urteko guztizko zerga oinarria zati bere kargura dauden pertsona kopurua eta pertsona onuraduna bera eta, hala badagokio, bere ezkontidea edo izatezko bikotekidea.

**6. artikulua.**- Prestazioa ematea onartzen duen ebazpenaren egunetik aurrera jarriko dira indarrean ondorio ekonomikoak, baldin eta eskaeraren eta jakinarazpenaren artean ez badira 6 hilabete baino gehiago igaro.

Epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez den kasuetan, prestazioa jasotzeko eskubidea, aitortua izaten bada, gehienezko epe hori amaitu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da.

**7. artikulua.**- Arau honetan aurreikusita ez dagoen beste edozertarako, 40/2010 eta 39/2007 foru dekretuetan xedatutakoa aplikatuko da, salbu eta aurreko artikuluetan esaten denarekin kontraesanen bat badago edo arau honen xede den mendetasun gradua ez den beste baterako soil-soilik eskatzen den baldintza bada.

**Xedapen gehigarria.**- Dekretu honen 3. artikuluaren hirugarren ataleko hirugarren paragrafoan ezarritakoa II. graduko (mendetasun larria) mendetasun egoeretarako ere aplikagarria izango da.

**Azken xedapenetatik lehenengoa.**- Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

**Azken xedapenetatik bigarrena.**- Foru dekretu hau Diputatuen Kontseiluak onartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Gasteiz, 2011ko martxoaren 23a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

2.- Las personas exentas de declaración por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas deberán acreditarlo.

A los efectos del presente Decreto Foral, a las personas que no declaren y no acrediten estar exentos, se les asignará la Base Imponible Total Anual de 60.000 euros en adelante.

3.- En el caso de que la persona beneficiaria tuviera cónyuge o pareja de hecho, se entenderá como Base Imponible Total Anual la mitad de la suma de las Bases de ambos miembros de la pareja.

Cuando la persona beneficiaria tuviera, además, a su cargo a ascendientes o descendientes que dependieran económicamente de ella, su capacidad económica se determinará dividiendo la Base Imponible Total Anual entre el número de personas consideradas a cargo además de la persona beneficiaria y, en su caso, su cónyuge o pareja de hecho.

**Artículo 6.**- Los efectos económicos se producirán a partir de la fecha de la resolución de reconocimiento de la prestación, siempre y cuando no hayan transcurrido más de 6 meses entre la solicitud y la notificación.

De haber transcurrido el plazo anterior y no se hubiera notificado la resolución, el derecho de acceso a la prestación que, en su caso, fuera reconocida, se generará desde el día siguiente al cumplimiento del plazo máximo indicado.

**Artículo 7.**- En todo lo no previsto en la presente norma, se aplicará lo dispuesto en el Decreto Foral 40/2010 y 39/2007, siempre y cuando no se contradiga con lo dispuesto en los artículos anteriores, o se trate de un requisito que se exija con exclusividad para un grado concreto de dependencia diferente al que es objeto de la presente norma.

**Disposición Adicional.**- Lo establecido en el párrafo tercero, del número 3, del artículo 3 del presente decreto, será igualmente de aplicación para las situaciones de dependencia del Grado II (dependencia severa).

**Disposición Final Primera.**- Se faculta a la Diputada Foral del Departamento de Política Social y Servicios Sociales para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo del presente Decreto Foral.

**Disposición Final Segunda.**- El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su aprobación por el Consejo de Diputados, y producirá efectos desde el día 1 de enero de 2011.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 2011.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputada de Política Social y Servicios Sociales, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Directora de Política Social y Servicios Sociales, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**1900**

**21/2011 FORU DEKRETUA, martxoaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Foru Aldundiaren museoetan antolatu diren udalekuetan parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak onartzen dituena.**

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko 64/1989 Foru Arauak (zati batean azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatua) Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen tasa eta prezio publikoen lege araubidea arautzen du.

Horregatik, haren 24., 25., 26. eta 27. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako Foru Aldundiaren Arte Ederren Museoan, Bibat Museoan, Zientzia Museoan, Arma Museoan eta Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoan antolatutako udalekuetan izena emateko prezio publikoak onartzen dira.

Ikusi da Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen Zerbitzuaren buruak emandako txostena.

## DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTES

**1900**

**DECRETO FORAL 21/2011, del Consejo de Diputados de 22 de marzo, que aprueba los precios públicos de la cuota de inscripción de las colonias de verano organizadas en los Museos de esta Diputación Foral.**

La Norma Foral 64/1989 sobre Tasas y Precios Públicos modificada en parte por la Norma Foral 33/1998 de 23 de noviembre, establece en su articulado la regulación del Régimen Jurídico de las tasas y precios públicos de las Entidades que componen el Sector Público Foral del Territorio Histórico de Álava.

En virtud de ello y conforme a lo dispuesto en sus artículos 24, 25, 26 y 27, se propone la aprobación del precio público de la cuota de inscripción de las colonias de verano organizadas por el Departamento de Euskera, Cultura y Deportes en los Museos de Bellas Artes de Álava, Bibat, Museo de Ciencias Naturales, Museo de Armería y Museo Diocesano de Arte Sacro.

Visto el informe emitido por el Jefe de Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico y Arqueológico,